



Artzaintza ez da lanbide eta bizimodu bat bakarrik. Kultura modu bat da, izaera edo gizakera bat. Esan daiteke, lehen-gizakia zen pizti primitiboa artzaintzarekin etorri zela kulturaren animalia izatera. Inguruko abereak heziz eta bere ondoan bizitzera egokituz, hasi zen hezitzen bera, hasi zen izadian beretzako leku jakin bat egokitzen, denboraren isuria eta urtaroen erritmoa menderatzen, alderrietako gizakiekin ere harremanak zibilizazio modu bateko arauen arabera itxuratzen.

Horregatixe, gizakiarentzat artzaintza ez da prehistoriako kontu bat bakarrik, modernitatean inportantzia guztia galdu duen sektore ekonomiko marginal bat. Barrurago begiraturaz gero, artzaintzak eta baserriak egin dutela ikusten da, eta egiten dutela oraindik, gure barrua. Ematen ez badu ere, Donostian edo Parisen eta New Yorken dabilten señorito eta señoritak funtsean artzainak dira, kulturalki begiratzen baditugu: hau da, beren barru-barruan. Gaur garen gizatasun hau, gure balioekin eta idealekin edo gure obligazioaren eta leialtasunaren zentzuarekin, artzaintzak eratu izan duena da. Gure moralak, erlijioak, gizartearen konzeptuak (politikak) artzaintzan dute beren oinarria. Barru-barruan denok gara nolabait artzainak, mendietan ikusten diren artaldean jabeak bezalaxe. Zibilizatu guztiok artzaintzan ditugu gure erro espiritualak.

Historiak buelta asko ematen du, baina buelta denek ez dute inportantzia berdina. Oso gutxi izaten dira benetan garrantzizkoak. Gizadiak bere milaka urtetako historian ezagutu dituen biragune edo momentu nagusiak bi, edo hiru, izan direla esan ohi dute historialari eta antropologoek. Bat oraintxe gertatzen ari den “iraultza zibernetikoa” izango litzateke. Batzuek makinaren inbentua aipatzen dute halako beste biragune larri bat bezala historian, bigarren iraultza handia. Bere garrantzi erabakiorraz inorentzat ezbairik uzten ez duena lehenengoa da, “iraultza neolitikoa” deitu ohi dena, gizon-emakumeak artzain bilakatu zirenekoa, ordura arteko beren bizi eta lan moduak arras irauli eta biziera guztiz berri bati abiera emanez.

Gizakia Jesukristo baino zazpi mila urte lehenago hasi da ekialdean, Euskal Herrian bost mila, jan behar zuenaren biltzaile edo ehiztaria izatetik, produzitzailea bera izatera pasatzen. Parajeak berez eta kasualitatez bezala hantzen sortzen dituen fruituak edo aleak biltzen, edo abere ahulenak harrapatzen ehiztari ibili ordez, orain lurrari landu eta berak hautatu duen alea emanarazi egingo dio modu kontrolatuan, zuhaitz basatiak gozatu egingo ditu; ehizatu ohi zituen abereak bezatu eta etxe ondoan gobernatu, beharra duen edozein momentutan janaria eskura edukitzeko moduan: urdeak, oiloak, ahuntzak eta batez ere ardiak. Zakurra da, dirudienez -otsoa, alegia-, gizakiak etxekotu eta hezi duen lehenengo animalia. Beharbada bata bestearen eskutik joan da lehen-gizonak otsoa eta ardia biak etxekotzea.

Berrikuntza horien guztien inportantzia ekonomikoa begien bistakoa da. Hizkuntzan bertan geratu da seinalea euskaraz: “aberatsa” abere askoren jabea da (gaurko aberatsek abereak baino bestelako ondasunak izaten badituzte ere). Artaldea kapital finko bat da. Arkumeak, ilea, haragia, esnea, fabrika txiki baten produktu ezberdinak. Ehizak eta bilketak ez bezala, artzaintzak ekonomia diferentziatu eta arautuki iraunkor bat sortu du, aurrezpen, inbertsio, produkzio, almagaztatu eta truke sistema oso batekin.

Imajinatu zer izango zen orain milaka urte gaztaren asmaketa! Janaria denbora luzean kontserbatzeko eta leku batetik bestera zorroan eroso eramateko modua. Ehiztariak behar ez zuen, baina artzaintzak eta etxeak galdegiten duen hainbat tresnaren eskulangintza eta artea garatu da poliki-poliki, harrizkoa lehenengo, zurezko eta buztinezkoa gero, metalezkoa geroago. Gizarte bizitza legeztatu da (gogora lurrean jabetasun “komunista”, toki askotan gaur arte dirauena), bas-herriak sortzen dira. Urrutiagoko gizatalde ezberdinen artean harremanak ugaritzen eta arautzen dira (partzoneria) larre beharrek eta transhumantziarekin. Artzainen aspaldiko ibilbide hauetxek omen dira gero erromatar-bideak eta Santiagoko-bidea bilakatu direnak. Eta, itxura guztiz, bide hauek artzaintza baino lehenagokoak dira, historiaurreko ehiztari ibiltarien bide berak: bide horien bazterretan paleolitiko suharrizko tresnak aurkitu izan dira. Lastima izango da, antzina-antzinatik gure arbaso guztiek ibili dituzten bideak oraintxe galtzea. Arbasoen milaka urtetako pena eta pozen lekukoak.

Gizabere zaharraren historian, artzaina giza-tipo berria da lurraren gainean. Mundu berri bat, kultura berri bat. Ohiturak eta mentalitateak aldatu dira. Gizon-emakumea kobazuloak utzi eta aire librean etxeak egiten hasi da (artzainen orain arteko etxabola askoren oso antzekoak zalantza gabe). Ekonomia berriaz, gizon-emakumea, tokiari lotuagoa bihurtu da. Gizon honek lurra bere aberri egingo du eta defendatuko du. Bizitzaren segurantzia ere bere eskuetan hartu du. Bestelakoxe moral burgoia izango du “nagusi” horrek, beti zortearen peko ibili behar duen ehiztari makurraren aldean. Lana sakratua izango da haren kode moralean (bizitzaren sostengua lana da orain). Lurrak, eguzki eta ilargiak, iturri eta errekek, esanahi poetiko eta mistiko berri bat hartu dizute gizakiaren begietan. Heriotzak berak zentsu argi bat hartu du, heriotz ondoko bizi berri baten ideiarekin. Urtaroen joan-etorrian dena hiltzen da, dena berpizten da. Gizakiak beti birjaiotzen den naturaren erritmoen baitan ulertzen dizu bere burua. Euskal Herriko mendiak dolmen eta tartalo-harriz



AIZKORRIKO GURUTZEA

bete dira. (Barandiaranen lur-karta batek erakusten duen bezala, artzaintza parajeak eta monumentu megalitikoak batera datoz). Artzainaren autokontzientziaren oinarria bere autonomia ekonomikoan eta kide guztien funtsezko berditasunean datza (gero “euskal demokrazia” foralarena bezalaxe). Gizon horrek autonomian ezarriko du nortasunaren eta heldutasunen moralaren oinarria. (Gaur ere oraindik halaxe oinarritzen dugu erantzukizun etikoa). Etabar.

Mundu “moderno” artzaintzarekin hasi da. Batez ere gure mundu “mitikoa”, erlijiosoa artzaintzari zor diogu ia osorik, eta jentilarotik kristautasunera, milaka urtetako aldakuntza guztien gainetik, artzaintzako mundu sinbolikoarekin jarraitzen dugu fedea adierazten. Marik ardi edo ahari bat izaten du alboan, Jesukristo “Artzain Ona” da. Horregatik Zegaman, Aizkorrin gurutzea dago, Aketegin Damea daukagu, badaezpada ere, artaldeak bezala herritarrak uda eta negu goitik begiratzeko.

Joxe Asurmendi